



Herrizaingo saila  
Segurtasun Sailburuordetza  
Kabinete eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritza  
Larrauri Mendotxe bidea 18  
48950 Erandio (Bizkaia)

## Gaia : kamera bat instalatzeko baimena

Hernaniko Udalak dituen hondakin bilketa puntu ezberdinak auzoetako leku baztertu eta ilunetan daude kokatuta. Eguneroko zaintzak eginda ere, ia ezinezkoa suertatzen da kontrol osoa izatea puntu hauek elkarren ondoan ez daudelako, auzoetan sakabanaturik baitaude. Puntu hauen kanpoaldean hainbat material arriskutsu uzten dituztela ohartu gara. Egungo egoera sozio-ekonomikoak familia asko bultzatu ditu eguneroko ogia lortzeko batetik bestera mugitzera eta puntu hauetara hurbiltzera. Gune hauek babestuta eta giltzaz itxita daude eta inguruko auzotarrek baino ez dute bertan sartzeko modurik. Bertara hurbiltzen direnak, oinez zein autoz, kanpo aldean pilatzen den materialaren artean miatzen dabiltzala ohartu gara (burdin zatiak, kristalak, obretako hondakinak eta enpresen hondakinak). Norberaren segurtasuna, osasuna eta egoera fisikorako kaltegarriak diren materialekin topo egiten dute eta hauen manipulazioak ondorio larriak dakartzate.

Bestalde, kamera honek bete beharreko funtzioa bete eta beste kokapen berri bat eman nahi izanez gero baimen berri bat eskatzeko moduz ere galdezka natorkizue, hau da, Kamera berberaren lekualdatzea burutzeko eman beharreko pausuaz.

Arrazoi hauek direla medio, horietako batean, Martindegiko auzoko bilgunean, kamera bat jartzeko asmoa dugu. Hori horrela, Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritzara zuzentzen naiz kamara honen berri emateko eta beraz, hartu behar diren neurriak hartzeko.

Hori dela eta jarraian idatziz honako datu hauek azaldu nahi ditugu:

Kameraren ezaugarriak:

-“SERVIDOR SERIE MINI ITX.2 PCI con software de video vigilancia WAF-HOME SMART con licencia para 4 camaras y 5 licencias remotas incluidas.”

-CAMARA MINI-DOMO 2,8-12MM 540L IR (21M) COLOR ANTIVANDALICA

-ROUTER de comunicación 3G BILLION RU OUTER BIPAC742GX

Kamera jarriko den helbidea : Martindegi auzoa, hondakin bilgunea ( Hernani ).

Bideokamera grabaketaren materialaren zaintza eraginkorra egingo duten ordezkari eta ordezkoaren izen abizenak.

-ANDONI MIRENA PIKABEA LERTXUNDI, Udaltzaingoko Zuzendaria, arduraduna izango da.

-MARKOS PAGOLA KORTAJARENA, Udaltzain Lehena , ordezkoa izango da.

Besterik gabe, agur

Hernanin, 2014ko urriaren 9a

Andoni Mirena Pikabea Lertxundi  
Udaltzaingoko Zuzendaria





SEGURTASUN SAILA  
Segurtasun Sailburuordetza  
Segurtasuna Koordinatatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejería de Seguridad  
Dirección de Coordinación de Seguridad

HERNANIKO  
UDALA

2014 AZA: 27  
NOV: 27

SARRERA

Zkia. 9776

Alkate jn.:

2014ko urriaren 9ko eskaerari dagokionez, honen bidez jakinarazten dizut Segurtasuneko sailburuordeak 2014ko otsailaren 17an emandako ebazpena, zeinean ezetsitzat jotzen baita Hernaniko Martindegi Auzoan, hondakinak jasotzen diren puntuan, bideokamara- instalazio finkoa jartzeko administrazio-baimenaren eskaera.

Erabakiak ez du administrazio-bidea amaitzen eta kontra gorantz jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango da Segurtasun Sailburuaren aurrean edo bera hartu duenaren aurrean hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita (30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa).

Hori guztia jakinarazten da 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 58. eta 89.3. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

Adeitasunez,

Erandion, 2014ko azaroaren 18an.

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
SEGURTASUN SAILA  
Segurtasun Sailburuordetza  
Segurtasuna Koordinatatzeko Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejería de Seguridad  
Dirección de Coordinación de Seguridad

**Id. Rodrigo GARTZIA AZURMENDI**  
Segurtasuna Koordinatatzeko Zuzendaria



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
SEGURTASUN SAILA  
Segurtasun Sailburuordetza  
Segurtasuna Koordinatatzeko Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejería de Seguridad  
Dirección de Coordinación de Seguridad

24 NOV 2014

SARRERA	IRTEERA
Zkia.	60051401861 Zkia.

SR. D. LUIS INTXAUSPE AROZAMENA JAUNA  
HERNANIKO ALKATEA



SEGURTASUN SAILA  
Segurtasun Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejería de Seguridad

SEGURTASUN SAILBURUORDEAREN  
EBAZPENA, MARTINDEGI AUZOKO  
HONDAKIN BILGUNEAN  
BIDEOKAMERA-INSTALAZIO  
FINKOAREN BAIMENARI  
DAGOKIONEZ HERNANIKO UDALAK  
EGINDAKO ESKARIA ONARTZEN EZ  
DUENA.

RESOLUCIÓN DEL VICECONSEJERO  
DE SEGURIDAD POR LA QUE SE  
DESESTIMA LA SOLICITUD DEL  
AYUNTAMIENTO DE HERNANI,  
RELATIVA A LA AUTORIZACIÓN DE  
LA INSTALACIÓN FIJA DE  
VIDEOCÁMARAS SITA EN EL PUNTO  
DE RECOGIDA DE RESIDUOS DEL  
BARRIO MARTINDEGI

### GERTAERAREN AURREKARIAK

I.- 2014ko urriaren 15ean Hernaniko Udaltzaingoa zuzendaria den Andoni Mirena Pikabea Lertxundi jaunaren idazkia jaso zen. Bertan, udalerrri horretako Martindegi auzoko hondakin bilgunean bideokamera finkoak ezartzeko baimena eskatzen zuen.

Hernaniko Udalak aditzera eman du minidomo motako kamera bat ezarri duela Martindegi auzoan dagoen, hondakin-bilketaren eremuan, material arriskutsuak uztea ekiditeko.

### OINARRI JURIDIKOAK

**LEHENENGOA.-** Hernaniko Udalak baimena eskatu du bideozaintzako kamera bat jartzeko Martindegi auzoko hondakin bilgunean; izan ere "Hernaniko Udalak dituen hondakin bilketa puntu ezberdinak auzoetako leku baztertu eta ilunetan daude kokatuta. Eguneroko zaintzak eginda ere, ia ezinezkoa suertatzen da kontrol osoa izatea puntu hauek elkarren ondoan ez daudelako, auzoetan sakabanaturik baitaude. Puntu hauen kanpoaldean hainbat material arriskutsu uzten dituztela ohartu gara".

Udalarén arabera, "Egungo egoera sozio-ekonomikoak familia asko bultzatu ditu eguneroko ogia lortzeko batetik bestera mugitzera eta puntu hauetara hurbiltzera. Gune hauek babestuta eta

### ANTECEDENTES DE HECHO

I.- Con fecha 15 de octubre de 2014 se recibió escrito de D. Andoni Mirena Pikabea Lertxundi, Director de Policía Local de la localidad de Hernani, solicitando la autorización para una instalación fija de videocámaras en el punto de recogida de residuos del Barrio Martindegi del mencionado municipio.

El Consistorio de Hernani informa que han colocado una cámara tipo minidomo en la zona de recogida de residuos del barrio Martindegi para evitar que se depositen materiales peligrosos.

### FUNDAMENTOS JURÍDICOS

**PRIMERO.-** El Ayuntamiento de Hernani solicita autorización para la instalación de una cámara de videovigilancia en el punto de recogida de residuos del Barrio Martindegi, debido a que "los diferentes puntos de recogida de residuos que el Ayuntamiento de Hernani ha habilitado en los distintos barrios se encuentran en zonas apartadas y oscuras. Dado que dichas zonas de recogida se encuentran alejadas entre sí, resulta difícil, a pesar de la vigilancia diaria, llevar a cabo un control absoluto y evitar que se depositen materiales peligrosos alrededor de las mismas".

El Ayuntamiento manifiesta que "La actual situación socio-económica empuja a muchas familias a moverse de un lado a otro en busca de comida, y en esa búsqueda llegan a las zonas mencionadas.



giltzaz ixita daude eta inguruko auzotarrek baino ez dute bertan sartzeko modurik. Bertara hurbiltzen direnak, oinez zein autoz, kanpo aldean pilatzen den materialaren artean miatzen dabiltzala ohartu gara (burdin zatiak, kristalak, obretako hondakinak eta enpresen hondakinak). Norberaren segurtasuna, osasuna eta egoera fisikorako kaltegarriak diren materialekin topo egiten dute eta hauen manipulazioak ondorio larriak dakartzate”.

Aplikazio-eremuari dagokionez, 4/1997 Lege Organikoak, abuztuaren 4koak (BLO), 1. artikuluan honakoa xedatzen du: “Lege honek Segurtasun Indar eta Gorputzek toki publikoetan, irekietan edo itxietan, irudiak eta soinua grabatzeko eta, ondoren, tratatzeko bideokamerak erabiltzea arautzen du. Helburua herritarren bizikidetasuna ziurtatu, indarkeria deuseztatu eta bide nahiz espazio publikoak bakez erabiltzea da. Gainera, herri-segurtasunarekin zerikusia duten delituak, hutsak edo arau-hausteak prebenitu nahi dira”.

Bestalde, aipatutako araudiak, bere 6. artikuluan, zera ezartzen du: bideokamerak erabiltzeko, proportzionaltasunaren printzipioa bete behar da, hots, bai egokitasuna, bai gutxieneko esku-hartzea. Horrek esan nahi du, bideo-zaintza herritarren segurtasuna mantentzeko neurri egokia denean baino ez da erabili behar instalazio finkoen kasuan, tamainako arriskua dagoenean-. Halaber, ohoreari, norberaren irudiarri eta pertsonen intimitateari eragin dakioken kaltea haztatu beharko da.

Halaber, BLOren 4. artikulua hurrengo ere zehazten du: “Bideokameren instalazioa baimentzeko, kontuan hartuko dira, proportzionaltasunaren irizpidearekin bai, honako irizpideak: eraikin eta instalazio publikoen eta beren sarreraren babesa ziurtatzea, defentsa nazionalerako instalazio erabilgarriak

Las zonas de depósito de residuos están protegidas y cerradas con llave, y sólo pueden acceder a ellas los vecinos de los alrededores. En consecuencia, las personas que se acercan a estos lugares — andando o en coche— buscan entre los materiales peligrosos depositados indebidamente (trozos de hierro, cristales, residuos de obras y de empresas), y los manipulan, lo cual puede generar consecuencias graves para su seguridad, salud e integridad física”.

En cuanto al ámbito de aplicación, el artículo 1 de la Ley Orgánica 4/1997, de 4 de agosto (LOV), señala: “La presente Ley regula la utilización por las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad de videocámaras para grabar imágenes y sonidos en lugares públicos, abiertos o cerrados, y su posterior tratamiento, a fin de contribuir a asegurar la convivencia ciudadana, la erradicación de la violencia y la utilización pacífica de las vías y espacios públicos, así como de prevenir la comisión de delitos, faltas e infracciones relacionados con la seguridad pública”.

Por otro lado, la citada normativa, en su artículo 6, establece que la utilización de videocámaras debe encontrarse presidida por el principio de proporcionalidad, en su doble versión de idoneidad y de intervención mínima, de suerte que únicamente debe acudir a este sistema de videovigilancia cuando resulte adecuado para el mantenimiento de la seguridad ciudadana -existencia de un razonable riesgo en el caso de instalaciones fijas-, debiéndose, asimismo, ponderar la finalidad pretendida con la afectación al honor, a la propia imagen y a la intimidad de las personas.

Asimismo, el artículo 4 LOV cabe señalar que “para autorizar la instalación de videocámaras se tendrán en cuenta, conforme al principio de proporcionalidad, los siguientes criterios: asegurar la protección de los edificios e instalaciones públicas y de sus accesos, salvaguardar las instalaciones útiles para



*zaintzea, hiri-segurtasunarekiko arau-hausteak alderatzea eta pertsonen eta ondasunen kalteak saihestea”.*

Bestalde, Euskadiko Bideozaintza eta Askatasun Batzordearen irizpidea da (2014ko maiatzaren 14ko bilkura), ezestea kontrolik gabeko isurketak egiaztatzea helburu duten polizia-bideozaintzako instalazio finkoetarako baimena lortzeko eskabidea, Bideozaintzari buruzko Lege Organikoaren aplikazio-eremuko ez izateagatik

Horrenbestez, hau ondoriozta daiteke: Martindegi auzoko hondakin bilgunean kontrolik gabeko isurketak kontrolatzeko jarri nahi duten bideozaintza-sistemak, eta, bereziki, irudiaren grabazioak, ez dutela araua betetzen, herritarrei toki publikoetan zor zaien segurtasunari eragitearen aldetik; egin-eginean ere, ezinbesteko elementua da hori abuztuaren 4ko 4/1997 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan, segurtasun-ingar eta -kidegoek toki publikoetan bideo-kamerak erabiltzea arautzen baitu lege horrek.

**BIGARRENA.-** Polizia-bideozaintza erregulatzen duten arauen aplikazioa baztertzuz gero kontrolik gabeko isurketak eta harriskutsuak kontrolatzeko kamerari dagokienez, ezin da aplikatu arau horiek aurreikusitako baimen-araubidea; eta, beraz, formalki bidezko da eskaria ez onartzea.

Hala ere, eskatzaileari esan beharrekoa da aipatzen den moduko bideozaintzarako sistema batek, hala balegokio, beteko lituzkeela egokiro abenduaren 13ko 15/1999 Legea, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, eta, bereziki, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren 1/2006 Agindua, azaroaren 8koa -kamera edo bideokamera bidez zaintza-helburuekin lortutako datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa-, aurretik aipatutako legedian eskatzen

*la defensa nacional; constatar infracciones a la seguridad ciudadana, y prevenir la causación de daños a las personas y bienes”.*

Por otra parte, es criterio de la Comisión de Videovigilancia y Libertades de Euskadi, en sesión celebrada el pasado 14 de mayo de 2014, desestimar la solicitud de autorización de las instalaciones fijas de videovigilancia policial destinadas al control de vertidos incontrolados, por quedar fuera del ámbito de aplicación de la Ley Orgánica de Videovigilancia.

Por todo ello, cabe concluir que el dispositivo de videovigilancia destinado al control de los vertidos incontrolados en el punto de recogida de residuos del Barrio Martindegi, y particularmente la grabación de imágenes, no cumple con la norma, en cuanto a la afectación a la seguridad ciudadana en lugares públicos, elemento imprescindible en el ámbito de aplicación de la Ley Orgánica 4/1997, de 4 de agosto, por la que se regula la utilización de videocámaras por las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad en lugares públicos.

**SEGUNDO.-** La exclusión de la aplicación de la normativa reguladora de videovigilancia policial para la cámara destinadas al control de vertidos incontrolados y peligrosos, supone la no aplicabilidad del régimen de autorización previsto en aquella, por lo que procede formalmente desestimar la solicitud.

No obstante lo anterior, cabe informar al solicitante que un sistema de videovigilancia similar al pretendido pudiera, en su caso, encontrar pacífico acomodo en el marco regulador de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y, en particular, en la Instrucción 1/2006, de 8 de noviembre, de la Agencia Española de Protección de Datos, sobre el tratamiento de datos personales con fines de vigilancia a través de sistemas de



direnak betez gero.

cámaras o videocámaras mediante el cumplimiento de los requisitos exigidos por la legislación precitada.

**ERABAKI DUT**

**RESUELVO**

**LEHENENGOA.-** Onarpenik ez ematea Hernaniko Udalaren eskariari, udalerriko Martindegi auzoko hondakin bilgunean kontrolik gabeko isurketak eta arriskutsuak kontrolatzeko kamera bat jartzeari dagokionez; izan ere, Bideozaintzari buruzko Lege Organikoaren eta haren garapen-arauen aplikazio-eremutik at geratzen baita.



**PRIMERO.-** Desestimar la solicitud del Ayuntamiento de Hernani respecto a la autorización de instalación de una cámara en el punto de recogida de residuos del Barrio Martindegi del municipio, destinada al control de vertidos incontrolados y peligrosos, por considerar que queda fuera del ámbito de aplicación de la Ley Orgánica de Videovigilancia y su normativa de desarrollo.

**BIGARRENA.-** Ebazpen hau Hernaniko Udaleko Alkateari jakinaraztea.

**SEGUNDO.-** Notificar la presente Resolución al Alcalde del Ayuntamiento de Hernani.

Gasteizen, 2014ko azaroaren 17an.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de noviembre de 2014.

  
  
 EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO  
 SEGURTASUN SAILA  
 Seguridad SAILBURUORDEA  
 DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
 Viceconsejería de Seguridad  
**JESÚS MARÍA ZUBIAGA NIEVA**  
**SEGURTASUN SAILBURUORDEA**  
**VICECONSEJERO DE SEGURIDAD**



IB1507

**TXOSTENA: HONDAKIN BILGUNEETAN BIDEOKAMARAK EZARRI AHAL IZATEKO DATUEN BABESERAKO FITXEROA SORTZEA**

Interesatua: ZErbitzu PUBliko Saila/Ingurumen Saila- Udalbatza.

**Aurrekariak:**

- Hernaniko Udalak, hasiera batean 1994ean sortu zituen izaera pertsonaleko datuen 1.go fitxeroak. (Udalbatzaren akordioa 1994-09-16, 94-09-26ko GAO-an argitaratuak).

- 2004ko urriaren 21eko Udalbatzaren akordio bidez onartu zituen fitxero gehienak, eta horien SEgurtasun dokumentua 2004-10-28ko GAO-n argitaratu zen.

- 2014ko Urriaren 9an Hernaniko udalak eskatu zuen Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera Martindegi Auzoan- hondakinen bilketa gunean kontrolik gabeko isurketak kontrolatzeko xedearekin bideokamara jartzeko baimena.

-2014ko azaroaren 17ko Segurtasun Sailburuodearen ebazpen bidez udalaren eskaerari zati batean ezezko erantzuna eman zitzaion, gai hori polizia-bideozaintza erregulatzen duten arauetatik kanpoko gai dela ulertuta, baina , ebazpen horretan beste aukera bat aipatzen zen. HOnela dio hitzez hitz:

“ Hala ere, eskatzaileari esan beharrekoa da aipatzen den moduko bideozaintzarako sistema batek, hala balegokio, beteko lituzkeela egokiro abenduaren 13ko 15/99 Legea, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, eta bereziki, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren 1/2006 Agindua, azaroaren 8koa- kamera edo bideokamera bidez zaintza-helburuekin lortutako datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa- aurretik aipatutako legedian eskatzen direnak betez gero.”

HOnela. Txosten honetan aztertzen dira datues babeserako fitxategi bat sortzeko prozedura, eta fitxategiek eduki beharreko egitura eta edukia zein den eta bere sorrerarako hartu beharreko akordioa.

**Txostena:**

Pertsona baten ahotsa eta irudia izaera pertsonaleko datua dela ulertzen da, honengatik datu horien grabaketa, transmisioa, mantentzea, gordetzea eta erreproduzitzea edo egiazko denboran emititzea, izaera pertsonaleko datuen babeserako gaiaren araudiari lotutako tratamenduak dira.

Izaera pertsonaleko datuen BABesa honako lege xedapenetan arautzen da:

- 15/1999 Legea, abenduak 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuen BABesa arautzen duena.
- Eusko Jaurlaritzaren 2/2004 Legea, otsailak 25koa, Titulartasun PUBlikoko Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxeroak eta Datuen BABeserako Euskal AGentzia Sortzen duena.
- 308/2005 Dekretua, urriak 18koa, 2/2004 Legea garatzen duena.
- 1720/2007 Dekretua, abenduak 21ekoa, 15/1999 Lege Organikoa arautzen duena.

KOntutan hartu behar da baita ere Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren 1/2006 Agindua, azaroak 6koa, kamera edo bideokamera bidez zaintza helburuekin lortutako datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa.

2/2004 Legeak, bere 5. artikuluan dio herri-administrazioek eta gainerako erakunde, korporazio eta entitateek beren aginpideak gauzatzeko egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak dituztenean baino ezin ditzakete bildu, tratatzeko asmoz, datu pertsonalak.



15/99 Legearen 7. artikulua zehazten ditu penal eta administratibo izaerako urrapienak egiteari buruzko izaera pertsonaleko datuak sartu ahal izango dituztela, administrazio eskudunek dagokion fitxeroetan soilik beraien arauetan aurrikusitako kasuetan.

Kasu honetan grabaketa kontrolik gabe egindako isurketak kontrolatzeko egingo litzateke. Aipatu isurketak ingurumena kaltetu dezake eta lurraren kutsaketa eragin dezake- batzuetan izaera berrreskurazinarekin- eta pertsonen osasuna ere arriskuan jar dezake.

Toki administrazioaren eskuduntzakoa da legezkontrako isurketak kontrolatzea, eta dagokion zigor administratiboak ezartzea, guztia hau uztailearen 28ko 22/2011 Legeak - Hondakin eta lur kutsatuak arautzen dituen- dionarekin eta Otsaila 27ko 3/1998 Euskal Herriko Ingurumenaren Babeserako Lege Orokorrak dionarekin adostasunean.

Horretaz gai aipatu 3/98 Legearen 5.2. artikulua arabera, Euskal Herriko ingurumen politika honako printzipioetan oinarrituta dagoela kontutan hartu behar da: baliabideen aprobetxamendu iraunkorraren printzipioa, kalteak zuzentzeko printzipioa, bereziki iturburuan, eta kutsatzen duenak eta kaltetzen duenak ordaindu behar dueneko printzipioan.

Bestalde 22/2011-ko Legeak bere 43 artikuluan ezartzen du aipatu legean aurrikusitakoaren bigilantzia, ikuskaritza eta modu egokian betetzearen kontrola dagokion autoritate administratiboek eramango dutela, bakoitzari dagokion eskuduntza eremuan, hondakin arloan eta hiritarren segurtasun arloan, eta autoritate eskudunak bere bigilantzia, ikuskaritza eta kontrol funtzioak betetzeko beharrezko diren baliabide pertsonal eta materialak eduki behar dituztela.

Guztia kontutan hartuta, Hernaniko Udala hondakin isurketa kontrolatzeko eta zigortzeko administrazio eskuduna denez, bidezaintzarako kamara jartzeko ahalmenduta dago, horretarako datuen babeserako indarrean dagoen legedian ezarritako betebeharrak bete behar ditu.

15/99 Legearen 20 artikulua, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea, aldatzea eta kentzea, Dagokion Boletin ofizialean iragarritako xedapen orokorraren bidez soilik egin daitezkeela, bertan adierazten du zein den xedapen horren oinarritzko edukia:

- Fitxategiaren helburua edo xedea eta aurrikusitako erabilera.
- Datuak bildu nahi diren inguruko pertsona edo taldeak.
- Izaera pertsonaleko datuak biltzeko modua edo prozedura.
- Fitxategiaren egitura, eta bertan sartuko diren pertsonal izaerako datuen tipo deskribapena.
- Datu emateak, eta datu eskualdaketak.
- Fitxategiaren Administrazioaren arduradun organuak.
- Kontsulta, Zuzenketa, deuseztatze edo aurkatze eskubideak noren aurrean egikaritu daitezkeen zerbitzua edo unitateak zehaztu behar dira.
- Segurtasun neurrien maila zein den adierazi behar da: oinarritzkoa maila, ertaina edo altua.

Bestalde, 2/2004 Legeak, bere 4. artikuluan dionez, aipatu fitxategiak sortzen, aldatzen edo deusezten dituen akordioak, aurretik aipatutako eduki guztiarekin, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean edo Lurralde historikokoan, argitaratu behar da, bere eskuduntza eremuaren arabera.

7. artikulua dio Administrazioek segurtasun dokumentua onartu dezaketela, fitxategi horien babeserako aplikatuko dena. Segurtasun dokumentu hori fitxategien arduradun direnek prestatu eta ezarri beharra daukate.

2/2004 Legearen 18 art-k Datuen Babeserako Erregistroa eratzen du, eta honelako fitxategiak bertan inskribatzeko beharra ezartzen du.

308/2005 Derketua, ezartzen du, EKAKo Entitate publikoek Datuen Babeserako Euskal Agentziari jakinerazi behar diotela izaera pertsonaleko datuen fitxategien sorrera, aldaketa edo deusezte oro,



horetarako ezarritako modelo normalizatua erabili behar delarik (2005-07-21 eko AVPD ren Zuzendariaren Ebazpen bidez onartua- EHAO 165, 2005-08-31).

Guzti hau kontutan hartuta, Hernaniko Udalak jarraitu beharreko prozedura hau izango litzateke:

- 1.- Izaera pertsonaleko datuen fitxategia sortzea eta bere babeserako Segurtasun Dokumentua sortzea.
- 2.- Udalbatzak, aurretiaz, dagokion Batzorde informatzailetik pasa ondoren, aipatu fitxategien eta bere segurtasun dokumentuaren onarpena.
- 3.- Akordioa, osorik, fitxategiarekin batera GAO-n argitaratzea.
- 4.- Datuen Babeserako Euskal Agentziari akordioa jakinaraztea, ondoren dagokion Datuen Babeserako Erregistroan inskribatu dezan eta ondoren Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren Erregistroan sartzeko.  
Jakinarazpena horretarako onartutako moduan (ereduak erabiliz, Telematikoki) egin behar da.
- 5.- Bigilantzia Kamerak daudela adierazten duen kartel informatzaile bat jarri behar da gunean, Euskal Agentziaren web orrian dagoen modeloaren arabera izan behar duelarik.

Gestio aldetik beharrezkoa da, fitxategiaren arduradun izango den organua finkatzea, eta zehazki fitxategiaren antolamendua, ardura, eguneroko kontrola norik eramango duen ( Udaltzaingoa, Ingurumen Teknikaria.....)

Udalak , honelako akordio bat hartu dezake:

*2004ko urriaren 21eko Udalbatzaren akordio bidez Hernaniko Udalak onartu zuen izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategien sorrera, eta horien SEgurtasun dokumentua, 2004-10-28ko GAO-n argitaratu zelarik.*

*Geroztik Hernaniko Udalak martxan jarri zuen Atez atezko zaborbilketa sistema hiritar hondakinen bilketarako, zenbait bilketa gune sortu zirelarik .....(hemen jarri bigilatu beharreko guneak)*

*Hernaniko Udalak, hondakinen gain dituen eskuduntzak egikaritu ahal izateko- besteen artean kontrolik gabeko hondakinen isurketak kontrolatzea- beharrezkoa du bideozaintzarako kamerak jartzea.*

*15/99 Legearen 20 artikulua diona kontutan hartuta: izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea, aldatzea eta kentzea, Dagokion Boletin ofizialean iragarritako xedapen orokorraren bidez ziolik egin daitekeela, bertan adierazten du zein den xedapen horren oinarritzko edukia.*

*Datuen Babeserako Erregistroa eratzen duen 2/2004 Esuko Legbiltzarraren Legearen 18 art-k diona kontutan hartuta: bere eremuan sartzen diren datu pertsonalen fitxategiak bertan inskribatzeko beharra ezartzen du.*

*Kontutan hartuz 308/2005 Dekretua, 2/2004 Legea garatzen duena- ezartzen du Euskal Komunitate Autonomoko Entitate publikoek Datuen Babeserako Euskal Agentziari jakinerazi behar diotela izaera pertsonaleko datuen fitxategien sorrera, aldaketa edo deusezte oro, horetarako ezarritako modelo normalizatua erabili behar delarik.*

*Udalbatzak honako erabakiak hartzen ditu:*

*1.- .....-ko hondakinen bilketa guneetan (zehaztu tokia/k) bideozaintzako kamerak jarri eta erabiltzeko prozedura hastea.*

*2.- Izaera pertsonaleko datuen fitxategi hauek sortzea, bere zehaztapenak dagokion Eranskinean biltzen direlarik:*



- a- Fitxategiaren izena: .....gunearen bigilantzia bideokamara bidez.
- b- Fitxategiaren izena: ..... "....." .....
- c- .....(kamera jarri nahi den gune bakoitzagatik fitxategi bat).

*Hauxe da egiten dudan txostena, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste baten kaltetan izan gabe.*

*Hernanin, 2015eko otsailaren 12an.*

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA



### III.- MODELO DE FICHERO DE DATOS PERSONALES.

Denominación del fichero: Vigilancia de ... de Kale Nagusia a través de videocámara. (hay que preparar un modelo por cada zona)

a) Finalidad del fichero y usos previstos para el mismo: Videovigilancia de ..... y control de vertidos ilegales.

b) Personas o colectivos sobre los que se pretenda obtener datos de carácter personal o que resulten obligados a suministrarlos: Habitantes/vecinos de [REDACTED] que acceden a las ..... (poner la dirección completa)

c) Procedimiento de recogida de los datos de carácter personal: Directamente de las personas físicas que acceden al lugar ..... mediante un equipo videograbador modo .....

d) Estructura básica del fichero y descripción de los tipos de datos de carácter personal incluidos: Base de datos en soporte de disco duro. Imágenes/sonidos.

e) Cesiones de datos de carácter personal y, en su caso, las transferencias de datos que se prevean a países terceros: Cesiones de datos de carácter personal y/o transferencias de datos que se prevean a países terceros: Cesión a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, al Ministerio Fiscal, a los Jueces y Tribunales o a otras Administraciones públicas para el ejercicio de funciones administrativas sancionadoras cuando, en tales casos, esté previsto expresamente en una norma con rango de ley, según lo establecido en el artículo 11 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

f) Órganos de las administraciones Responsables del Fichero: Ayuntamiento de [REDACTED]

g) Servicios o unidades ante los que pudiesen ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición:  
Ayuntamiento de [REDACTED]  
(Gipuzkoa).

h) Medidas de seguridad con indicación de nivel: Básico.



Zerbitzu publiko eta merkataritza batzorde informatzaileak 2015eko otsailaren 19an egindako ezohiko bilkuran, besteak beste honako irizpen hau eman zuen:

**2.- Hondakinen kontrolik gabeko isurketa saihesteko zaintzarako bideokamerak jartzea eta izaera pertsonaleko datu fitxategiak sortzea**

Gaiaren azalpena

Aztertu da Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako hondakin bilguneetan bideokamerak ezarri ahal izateko datuen babeserako fitxeroa sortzeari buruzko txostena. Txosten horrek jasotzen du izaera pertsonaleko datuak babesteko legedia, Udalak dituen betebeharrak eta jarraitu beharreko prozedura

Proposamena bozketara eraman da

Bozketaren emaitza

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	4	Aitor Miner Aginaga, Asier San Emeterio Otegi, Begoña Zuza Zabalegi eta Luix Intxauspe Arozamena
KONTRA	1	Andoni Amonarraiz Gomez
ABSTENTZIOAK		

Proposamena gehiengoz Osoko Bilkurara

2004ko urriaren 21eko Udalbatzaren akordio bidez Hernaniko Udalak onartu zuen izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategien sorrera, eta horien SEgurtasun dokumentua, 2004-10-28ko GAO-n argitaratu zelarik.

Geroztik Hernaniko Udalak martxan jarri zuen Atez atezko zabor-bilketa sistema hiritar hondakinen bilketarako, zenbait bilketa gune sortu zirelarik.

Hernaniko Udalak, hondakinen gaian dituen eskuduntzak egikaritu ahal izateko- besteen artean kontrolik gabeko hondakinen isurketak kontrolatzea- beharrezkoa du bideozaintzarako kamerak jartzea.

15/99 Legearen 20 artikulua diona kontuan hartuta: izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea, aldatzea eta kentzea, Dagokion Buletin ofizialean iragarritako xedapen orokorraren bidez solik egin daitekeela, bertan adierazten du zein den xedapen horren oinarritzko edukia.

Datuen Babeserako Erregistroa eratzen duen 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 18 art-k diona kontuan hartuta: bere eremuan sartzen diren datu pertsonalen fitxategiak bertan inskribatzeko beharra ezartzen du.

Kontuan hartuz 308/2005 Dekretua, 2/2004 Legea garatzen duena-ezartzen du Euskal Komunitate Autonomoko Entitate publikoek Datuen Babeserako Euskal Agentziari jakinarazi behar diotela izaera pertsonaleko datuen fitxategien sorrera, aldaketa edo deuseztatze oro, horretarako ezarritako modelo normalizatua erabili behar delarik.

Erabaki dezala:

1.- Martindegi, Elizatxo, Osiñaga eta Jauregiko larrialdi guneetako hondakinen bilketa zonaldeetan bideozaintzarako kamerak jarri eta erabiltzeko prozedura hastea.

2.- Izaera pertsonaleko datuen fitxategi hauek sortzea, bere zehaztapena dagokion eranskinean biltzen delarik:

a.- Fitxategiaren izena: Martindegiko bilketa gunearen bigilantzia bideokamara bidez.


b.- Fitxategiaren izena: Elizatxoko bilketa gunearen bigilantzia bideokamara bidez.

c.- Fitxategiaren izena: Osiñagako bilketa gunearen bigilantzia bideokamara bidez.

d.- Fitxategiaren izena: Jauregiko bilketa gunearen bigilantzia bideokamara bidez.

Irizpen hau neure egiten dudalarik, jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioak izateko adierazten dizut.

Hernanin, 2015eko otsailaren 20an  
Lehendakaria





ERANSKINA  
Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxategiak

1.- Fitxategiaren izena: Martindegiko bilketa gunearen bideokamera bidezko zaintza

- a) Fitxategiaren xedea eta erabilerak: Martindegiko bilketa puntuaren bideozaintza eta legez kontrako hondakin-isurketaren kontrola
- b) Zein pertsona edo kolektiborengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak edo pertsona edo kolektibo horietatik nor eman behar dituen datuak nahitaez: Martindegi auzoko bilketa gunea erabiltzen duten Hernaniko bizilagunak. (helbide osoa jarri)
- c) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura: zuzenean bertara joaten diren pertsonen bidez, bideograbatzaileaz baliatuz.
- d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta horretara bildutako izaera pertsonaleko datu-moten deskripzioa: datu basea disko gogorreko euskarrian. Irudiak/soinuak.
- e) Izaera pertsonaleko datuen lagapena eta, hala denean, hirugarren herrialdeetara egin daitezkeen transferentziak: izaera pertsonaleko datuen lagapena edota hirugarren herrialdeetara egin daitezkeen datu transferentziak: datuak Segurtasun Indar eta Kidegoei, Ministerio Fiskalari, Epaila eta Epaitegiei edo beste administrazio publikoei uztea administrazioaren zehapen funtzioak betetzeko helburuz, lege mailako arau batean espresuki aurreikusita badago, Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa den azaroaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
- f) Fitxategiaren arduradun izango diren Administrazioen organoak: Hernaniko Udala.
- g) Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezeztatzeko eta horien kontra agertzeko eskubideak erabil daitezke Zerbitzu edo unitate hauen aurrean: Hernaniko Udala, Gudarien Plaza, 1. ,-20120- Hernani (Gipuzkoa).
- h) Segurtasun neurriak, beraien maila zehaztuz: Oinarritzko segurtasun maila.

2.- Fitxategiaren izena: Elizatzoko bilketa gunearen bideokamera bidezko zaintza

- a) Fitxategiaren xedea eta erabilerak: Elizatzoko Auzoko bilketa puntuaren bideozaintza eta legez kontrako hondakin-isurketaren kontrola
- b) Zein pertsona edo kolektiborengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak edo pertsona edo kolektibo horietatik nor eman behar dituen datuak nahitaez: Elizatzoko auzoko bilketa gunea (Hilerriaren ondoan dagoen aparkalekuan kokatua) erabiltzen duten Hernaniko bizilagunak.
- c) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura: zuzenean bertara joaten diren pertsonen bidez, bideograbatzaileaz baliatuz.
- d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta horretara bildutako izaera pertsonaleko datu-moten deskripzioa: datu basea disko gogorreko euskarrian. Irudiak/soinuak.
- e) Izaera pertsonaleko datuen lagapena eta, hala denean, hirugarren herrialdeetara egin daitezkeen transferentziak: izaera pertsonaleko datuen lagapena edota hirugarren



herrialdeetara egin daitezkeen datu transferentziak: datuak Segurtasun Indar eta Kidegoei, Ministerio Fiskalari, Epaila eta Epaitegiari edo beste administrazio publikoari uztea administrazioaren zehapen funtzioak betetzeko helburuz, lege mailako arau batean espresuki aurreikusita badago, Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa den azaroaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

- f) Fitxategiaren arduradun izango diren Administrazioen organoak: Hernaniko Udala.
- g) Datueta sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezeztatzen eta horien kontra agertzeko eskubideak erabil daitezke Zerbitzu edo unitate hauen aurrean: Hernaniko Udala, Gudarien Plaza, 1. , -20120- Hernani (Gipuzkoa).
- h) Segurtasun neurriak, beraien maila zehaztuz: Oinarrizko segurtasun maila.

### 3.- Fitxategiaren izena: Osinagako bilketa gunearen bideokamera bidezko zaintza

- a) Fitxategiaren xedea eta erabilerak: Osinaga Auzoko bilketa puntuaren bidezko zaintza eta legez kontrako hondakin-isurketaren kontrola
- b) Zein pertsona edo kolektiborengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak edo pertsona edo kolektibo horietatik norik eman behar dituen datuak nahitaez: Osinaga auzoko bilketa gunea erabiltzen duten Hernaniko bizilagunak.
- c) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura: zuzenean bertara joaten diren pertsonen bidez, bidegrabatzaileaz baliatuz.
- d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta horretara bildutako izaera pertsonaleko datu-moten deskribzioa: datu basea disko gogorreko euskarrian. Irudiak/soinuak.
- e) Izaera pertsonaleko datuen lagapena eta, hala denean, hirugarren herrialdeetara egin daitezkeen transferentziak: izaera pertsonaleko datuen lagapena edota hirugarren herrialdeetara egin daitezkeen datu transferentziak: datuak Segurtasun Indar eta Kidegoei, Ministerio Fiskalari, Epaila eta Epaitegiari edo beste administrazio publikoari uztea administrazioaren zehapen funtzioak betetzeko helburuz, lege mailako arau batean espresuki aurreikusita badago, Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa den azaroaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
- f) Fitxategiaren arduradun izango diren Administrazioen organoak: Hernaniko Udala.
- g) Datueta sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezeztatzen eta horien kontra agertzeko eskubideak erabil daitezke Zerbitzu edo unitate hauen aurrean: Hernaniko Udala, Gudarien Plaza, 1. , -20120- Hernani (Gipuzkoa).
- h) Segurtasun neurriak, beraien maila zehaztuz: Oinarrizko segurtasun maila.

### 4.- Fitxategiaren izena: Jauregi bilketa gunearen bideokamera bidezko zaintza

- a) Fitxategiaren xedea eta erabilerak: Jauregi Bilarako bilketa puntuaren bidezko zaintza eta legez kontrako hondakin-isurketaren kontrola
- b) Zein pertsona edo kolektiborengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak edo pertsona edo kolektibo horietatik norik eman behar dituen datuak nahitaez: Jauregi Bilarako bilketa gunea erabiltzen duten Hernaniko bizilagunak.
- c) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura: zuzenean bertara joaten diren pertsonen bidez, bidegrabatzaileaz baliatuz.





d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta horretara bildutako izaera pertsonaleko datu-moten deskripzioa: datu basea disko gogorreko euskarrian. Irudiak/soinuak.

e) Izaera pertsonaleko datuen lagapena eta, hala denean, hirugarren herrialdeetara egin daitezkeen transferentziak: izaera pertsonaleko datuen lagapena edota hirugarren herrialdeetara egin daitezkeen datu transferentziak: datuak Segurtasun Indar eta Kidegoei, Ministerio Fiskalari, Epaille eta Epaitegiei edo beste administrazio publikoei uztea

---

azaroaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

f) Fitxategiaren arduradun izango diren Administrazioen organoak: Hernaniko Udala.

g) Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezeztatzeko eta horien kontra agertzeko eskubideak erabil daitezke Zerbitzu edo unitate hauen aurrean: Hernaniko Udala, Gudarien Plaza, 1. , -20120- Hernani (Gipuzkoa).

h) Segurtasun neurriak, beraien maila zehaztuz: Oinarritzko segurtasun maila.